

# Urriaren 15eko 73/1991 FORU DEKRETUA, zerga izaerako okerreko dirusarreraren itzulketa egiteko prozedura arautzen duena.<sup>1</sup>

## AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

|                                                                                                                                                          |   |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK.....                                                                                                                  | 2 |
| 1. artikulua. Itzulketa eskubidearen titularrak. (Indargabetua).....                                                                                     | 2 |
| 2. artikulua. Itzulketarako eskubidearen etekina. (Indargabetua).....                                                                                    | 2 |
| 3. artikulua. Preskripzioa.(Indargabetua) .....                                                                                                          | 2 |
| II. KAPITULUA: ITZULKETARAKO ESKUBIDEAREN AITORTZEKO PROZEDURA .....                                                                                     | 2 |
| 4. artikulua. Hastapena. (Indargabetua) .....                                                                                                            | 2 |
| 5. artikulua. Instrukzioa.(Indargabetua) .....                                                                                                           | 2 |
| 6. artikulua. Ebazpena. (Indargabetua).....                                                                                                              | 2 |
| 7. artikulua. Itzulketa balizkoak. (Indargabetua).....                                                                                                   | 2 |
| 8. artikulua. Likidazio-aitorpenak edo autolikidazioak. ....                                                                                             | 2 |
| 9. artikulua. Atxekipenak eta ondorioak. ....                                                                                                            | 3 |
| III. KAPITULUA: ITZULKETAREN EXEKUZIOA .....                                                                                                             | 3 |
| 10. artikulua. Exekuzioa. ....                                                                                                                           | 4 |
| 11. artikulua. Konpentsazioa.(Indargabetua) .....                                                                                                        | 4 |
| 12. artikulua. Aurrekontu egozketarako arauak. ....                                                                                                      | 4 |
| 13. artikulua. Espediente kolektiboak. ....                                                                                                              | 4 |
| IV. KAPITULUA: XEDAPEN OSAGARRIAK .....                                                                                                                  | 4 |
| 14. artikulua. Gipuzkoako Foru Diputazioa ez den edozein Administrazio Publikoen alde ezarritako errekargu eta tributuen itzulketa. (Indargabetua) ..... | 5 |
| 15. artikulua. Zehapenean barkapen edo iraungipena. (Indargabetua) .....                                                                                 | 5 |
| 16. artikulua. Efektu tinbredunak erabiliz eginiko sarreraren itzulketa. (Indargabetua).....                                                             | 5 |
| XEDAPEN GEHIGARRIAK .....                                                                                                                                | 5 |
| Lehena. Berrikuste prozedura. (Indargabetua) .....                                                                                                       | 5 |
| Bigarrena. Likidazio-aitorpen edo autolikidazio baten zuzenketa eskaera. ....                                                                            | 5 |
| Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorten mekanizatuak. ....                                                                   | 5 |
| Laugarrena. Transferentzia bankarioz itzultzea.....                                                                                                      | 5 |
| Bosgarrena. Ezarpen eremua.....                                                                                                                          | 6 |
| XEDAPEN IRAGANKORRA .....                                                                                                                                | 6 |
| Lehena. (Indargabetua) .....                                                                                                                             | 6 |
| Bigarrena. (Indargabetua) .....                                                                                                                          | 6 |
| Hirugarrena. (Indargabetua).....                                                                                                                         | 6 |
| XEDAPEN DEROGATZAILEA .....                                                                                                                              | 6 |
| AZKEN XEDAPENAK .....                                                                                                                                    | 6 |
| Lehena.....                                                                                                                                              | 6 |
| Bigarrena.....                                                                                                                                           | 6 |
| ALDAKETAK.....                                                                                                                                           | 7 |

<sup>1</sup> Irailaren 26eko 41/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, indarrik gabe utzi zuen, xedapen indargabetzaile bakarraren bitartez, urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua, zerga izaerako okerreko sarrerak itzul-tzeko prozedura arau-tzen duena, ondoko artikulua izan ezik: 8., 9., 10., 12. eta 13. artikulua, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak, eta bosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua.

Okerreko dirusarrera kasu ezberdinen arabera itzulketarako eskubidea aitortzeko jarraitu beharreko prozedura, erregelamendu bidez arautuko dela aurrikusten du Zergekiko Foru Arau Orokorraren 150. artikulua, apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauak onarturiko idazketan. Foru Dekretu honek, aipatu prozedura eta okerreko dirusarreraren itzulketak egiteko modua bideratzeko tresna izan nahi du batez ere.

Era berean, zergapekoek eginiko autolikidazioak zuzentzeko prozedura ere arautu da.

Horren indarrez, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaur buruturiko bileran deliberatu ondoren, honako hau

## **XEDATZEN DUT**

### **I. kapitulua: Printzipio orokorrak**

- 1. artikulua. Itzulketa eskubidearen titularrak. (Indargabetua)**
- 2. artikulua. Itzulketarako eskubidearen etekina. (Indargabetua)**
- 3. artikulua. Preskripzioa. (Indargabetua)**

### **II. kapitulua: Itzulketarako eskubidearen aitortzeko prozedura**

- 4. artikulua. Hastapena. (Indargabetua)**
- 5. artikulua. Instrukzioa. (Indargabetua)**
- 6. artikulua. Ebazpena. (Indargabetua)**
- 7. artikulua. Itzulketa balizkoak. (Indargabetua)**
- 8. artikulua. Likidazio-aitorpenak edo autolikidazioak.**

1. Zergapeko baten ustez, berak eginiko likidazio-aitorpen edo autolikidazio baten ondorioz okerreko dirusarrera egin bada, oker ordaindutakoa itzultzea eskatu ahal izango dio zerga-administrazioako organo eskudunari.

2. Dagokion likidazio aitorpen edo autolikidazioa aurkeztu eta Administrazioak behin-betiko likidazioa egin aurretik, edo halakorik ezean, behar den likidazio bidez zerga-zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea, nahiz okerreko dirusarrera itzultzeko eskubidea indarririk gabe geratu aurretik aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Administrazioak behin-behineko likidazioa luzatu ondoren, zergapekoak oraindik eskatu ahal izango du bere hasierako likidazio-aitorpen edo autolikidazioagatik oker ordainduriko kopurua itzultzea, baldin eta behin-behineko likidazioa aurreko hori zuzenduz eta zergapekoaren oraingo eskaera eragiten duena ez den arrazoiren batengatik egin bada.

Prozeduraren hastapen eta instrukzioan, Foru Dekretu honetako 4. artikuluan 3. zatian eta 5. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**3.** Prozedura izapidatu ondoren, bidezko den ebazpena, behin-behineko likidazio izaera izango duena, emango du Administrazioak, eta dagokion itzulketa egingo. Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteren buruan zerga-administrazioak erabakirik eman ez badu, eskabideari buruzko berariazko ebazpenaren zain gera daiteke zergapekoa edo, berandutza salatu beharrik gabe, hura ezetsitzat eman, ustezko ebazpen horren aurka dagokion erreklamazio ekonomiko-administratiboa, birjarpen errekurtsua aurrez dela, tartejartzeko, baldin eta interesatuak hala erabakiko balu.

**4.** Likidazio-aitorpen edo autolikidazio bat aurkeztearen ondorioz eginiko dirusarreraren itzulketarako eskubidea, organo eskudunak eginiko behin-behineko edo behin-betirako likidaziotik hala ateratzen denean hartuko da aitortutzat.

## **9. artikulua. Atxekipenak eta ondorioak.**<sup>2</sup>

**1.** Foru Aldundian behar ez bezala atxiki eta sartutako kopuruen itzulketa eskatu ahal izango dute atxikitzaileek. Eskaera hori aurreko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera egin ahal izango da, eta, edozein kasutan, atxikipena jasan duenak esku izango du atxikipenaren egintza inpugnatzeko Erreklamazio Ekonomiko-Administratiboen Prozedurari buruzko Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

Atxikipena gehiegizkotzat jotzen denean, jasan duen pertsona edo entitatearen alde egingo da itzulketa, non eta, konturako atxikipena izateagatik, haren zenbatekoa ondorengo aitorpen-likidazio batean kendu ez den. Kasu horretan, ez da bidezko izango inolako itzulketarik egitea.

**2.** Okerreko dirusarreraren itzulketa-eskaera derrigorrezko jasanarazpena duten zerga kuotei dagokienean, jasanarazi dituen subjektu pasiboak egin ahal izango du, eta horretarako, Foru Dekretu honen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituko dio, Erreklamazio Ekonomiko-Administratiboen Prozedurari buruzko Erregelamenduak xedatutakoaren kaltetan gabe.

Jasanarazi eta ingresaturiko kuotak gehiegizkotzat jotzen badira, Foru Aldundian ingresatu zituen subjektu pasiboari itzuliko zaizkio. Horrek ez du eragozten, dena den, subjektu pasiboak bidezko jarduketak egitea jasanarazpena jasan zutenei ordaina emateko.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan, ordea, jasanarazitako kuotak jasanarazpena jasan duen pertsona edo entitateari itzuliko zaizkio baldin eta jasanarazpen hori faktura edo agiri baliokidez egin bada eta pertsona horiek kuota horien zenbatekoa ondorengo likidazio-aitorpen batean kendu edo berreskuratu ez badute. Administrazioak subjektu pasiboari, jasanarazpena jasan duenari edo hirugarren bati itzuli edo ordaindu dizkion kuota jasanaraziak ez dira inoiz itzuliko.

## **III. kapitulua: Itzulketaren exekuzioa**

---

<sup>2</sup> 9. artikulua hau uztailaren 26ko 75/2000 Foru Dekretuak, zerga izaerako okerreko dirusarreraren itzulketa egiteko prezedura arautzen duen urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua aldatzekoaren artikulua bakarraren Bost apartatuak aldatzen du. 2000ko abuztuaren 8an sartzen da indarrean.

## **10. artikulua. Exekuzioa.**

1. Okerreko sarrera baten itzulketarako eskubidea errekonozitzen duen ebazpena emanik, interesatuari jakinaraziko zaio eta pertsona edo entitate hartzekodunaren aldeko ordainketa manamendua luzatuko da, haren irmotasunaren zain egon gabe.

2. Zerga-zor baten ordainketa dela eta Foru Diputazioan eginiko dirusarreraren itzulketa, honakootan izango da bidezko:

a) Administrazio izaerako errekurso edo erreklamazio bat nahiz epai edo bestelako ebazpen judizial bat betetzeak hala eskatzen duenean.

b) Organo eskudunek eginiko behin-behineko zein behin-betirako likidazioen emaitza hori denean.

c) Administrazioko erabaki edo ebazpen batetik hala ateratzen denean, aurreko hizkietan jasotzen denetatik ezberdinak badira, lege bidezko zena baino kopuru handiagoa ordaintzea ekarri zuten administrazio egintzen berrazterketa edo baliogabetzea dakartena.

3. Aurreko atalean jasotako balizkoetan, administrazioko edo epaitegi-tako ebazpenak agintzen duten eran exekutatu eta beteko dira, Administrazioko organoek itzulketa egin dezaten nahikoa izango delarik epaiaren edo ebazpen judizialaren lekukotza edo dagokion administrazio-erabaki nahiz ebazpena edo horren kopia egiztatua, erabaki edo ebazpena irmoa dela, edo, irmoa ez balitz ere, behar diren ondorioak izan ditzala, eta dirusarreraren egin zela, baina itzulketarik egin ez eta hartarako eskubideak oraindik ez duela indarra galdu egiaztatu ondoren, azken gorabehera hauek itzulketarako arrazoi den erabaki edo ebazpenean bertan kreditaturik ageri direnean salbu.

Zehazkiago, zerga-likidazioa edo itzulketaren hartzekodunak berak tartear dezakeena beste errekursorik onartzen ez duen Administrazio beraren erabaki nahiz ebazpenaren kasuan, ez da ebazpenaren irmotasunaren zain egon beharrik izango.

## **11. artikulua. Konpentsazioa. (Indargabetua)**

## **12. artikulua. Aurrekontu egozketarako arauak.**

Zerga izaerako edozein itzulketa, itzulketa eragin zuenaren izaera bereko zerga-sarrerak erakusten dituen aurrekontu-kontzeptuaren kargura egingo da, zenbateko osoagatik egin ere, eta aurrekontu ohizkoari ezarriko zaio.

Ezarketa hori egin egingo da, edozein kasutan ere, nahiz eta Sarreraren aurrekontuko kontzeptu konkretuan gutxitzeko adina dirubilketa ez izan edo baita aurrekontu-kontzeptu hori desagertu bada ere.

## **13. artikulua. Espediente kolektiboak.**

Zerga izaerako itzulketak espediente kolektibo bidez izapidatu ahal izango dira, Ogasun eta Finantza Departamenduko Foru Diputatuak horretarako ezar ditzan baldintza eta betebeharrak formalen kaltetan gabe.

## **IV. kapitulua: Xedapen osagarriak**

**14. artikulua. Gipuzkoako Foru Diputazioa ez den edozein Administrazio Publikoen alde ezarritako errekaru eta tributuen itzulketak. (Indargabetua)**

**15. artikulua. Zehapenean barkapen edo iraungipena. (Indargabetua)**

**16. artikulua. Efektu tinbredunak erabiliz eginiko sarreren itzulketak. (Indargabetua)**

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenena. Berrikuste prozedura. (Indargabetua)**

**Bigarrenena. Likidazio-aitorpen edo autolikidazio baten zuzenketa eskaera.**

1. Zergapekoak, berak eginiko likidazio-aitorpen edo autolikidazio baten ondorioz, eta okerreko ordainketarik egin izan ez arren, legez dagozkio eskubideek kaltea jasan dutela erizten badiu, zuzenketa eskatu ahal izango dio zerga-administrazioako organo eskudunari.

2. Dagokion likidazio-aitorpen edo autolikidazio aurkeztu ondoren eta Administrazioak behin-betiko likidazioa edo, halakorik ezean, likidazio bidez zerga zorra zehazteko Administrazioak duen eskubidea indarrik gabe geratu aurretik egin ahal izango da eskaera.

Administrazioak behin-behineko likidazioa libratu izan arren, hasierako likidazio-aitorpen edo autolikidazioaren zuzenketa edo berrespena eskatu ahal izango du zergapekoak oraindik, baldin eta behin-behineko likidazioa egin bada, orain subjektu pasiboak edo erantzuleak eginiko eskaera eragin duen arrazoiz kanpokoengatik zuzenduko direlarik.

3. Prozedura instruitu ondoren, bidezko den ebazpena emango du Administrazioak. Zerga-administrazioak erabakirik eman gabe hiru hilabete igaro ondoren, berariazko erantzunaren zain gera daiteke zergapekoa edo, berandutza salatu beharrik gabe, hasierako bere likidazio-aitorpen edo autolikidazioa berretsiz hartu isiltasun administratiboa dela bide, horrela, ustezko ebazpen horren aurka dagokion errekurtso edo erreklamazioa egin ahal izateko.

**Hirugarrenena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpen mekanizatuak.**

Autolikidazio edo likidazio-aitorpen gainean Foru Dekretu honek xedatzen duena, ezargarri izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpen mekanizatuarentzat ere.

**Laugarrenena. Transferentzia bankarioz itzultzea.<sup>3</sup>**

Xedapenen batek zerga itzulketak helbideratzea derrigorrezkoa egitea oztopatu gabe, zergapekoek eskatu dezakete Gipuzkoako Foru Ogasunak edozein zerga-kontzepturengatik euren alde egin beharreko itzulketak transferentzia bankarioz sar ditzala eurek izendaturiko aurrezki kontuan nahiz kontu korrontean.

---

<sup>3</sup> 4. xedapen gehigarri hau uztailaren 26ko 75/2000 Foru Dekretuak, zerga izaerako okerreko dirusarreraren itzulketak egiteko prozedura arautzen duen urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua aldatzekoaren artikulua bakarrez Zortzi apartatuak aldatzen du. 2000ko abuztuaren 8an sartzen da indarrean.

Horretarako, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak onartzen duen inprimaki eredua bete beharko dute eta aurrezki kontua zein kontu korrontea irekita duten Banketxe, Aurrezki Kutxa nahiz Kreditu Kooperatiban aurkeztu.

Entitate horiek aurkeztu diren eskaeren berri eman beharko diote Foru Ogasunari, Finantza eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiak onartutako baldintza eta prozeduraren arabera.

### **Bosgarrena. Ezarpen eremua.**

1. (Indargabetua)

2. (Indargabetua)

3. Okerreko dirusarreraren itzulketaz gainerako tributu izaerako itzulketak, tributu ezberdinen araudi espezifikoan edo tributu sistemako erregimen juridiko amankomunean aurrikusitakoak, euren xedapen propioen bidez arautuko dira. Hala ere, zerga izaerako itzulketa guztiei ezarri ahal izango zaizkie Foru Dekretu honen 12 eta 13. artikuluetan jasoriko arauak.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Lehena. (Indargabetua)**

**Bigarrena. (Indargabetua)**

**Hirugarrena. (Indargabetua)**

### **XEDAPEN DEROGATZAILEA**

Foru Dekretu hau indarrean sartzen denetik, bertan xedatutakoaren aurka dauden lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak derogatuta geratzen dira.

### **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehena.**

Foru Dekretu hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

**Bigarrena.**

Foru Dekretu honen artikuluetan zehar jasotzen diren baimenetatik bidezko direnez gain, hori bete ahal izan dadin behar diren xedapen guztiak eman ahal izango ditu Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak.

## ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 10eko 91/1996 FORU DEKRETUA, zergen kontu korrontea sortzekoa. (1996-12-16ko GAO).*
  - Lehen xedapen gehigarriak 2.2.b) artikulua 2. parrafoa gehitzen du.
- *Uztailaren 26ko 75/2000 FORU DEKRETUA, zerga izaerako okerreko dirusarreraren itzulketa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua aldatzeko. (2000-08-07ko GAO)*
  - Artikulu bakarrak 2. artikuluko 2. apartatua, 3. artikulua, 5. artikulua, 6. artikuluko 1. apartatua, 9. artikulua, 11. artikulua, 15. artikuluko 3. apartatua eta 4. xedapen gehigarria aldatzen ditu.
- *Irailaren 26ko 41/2006 FORU DEKRETU, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena. (2006-10-09ko GAO)*
  - Xedapen indargabetzaile bakarrak urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua indargabetzen du, zerga izaerako okerreko sarrerak itzultzeko prozedura arautzen duena, ondoko artikulua izan ezik: 8., 9., 10., 12. eta 13. artikulua, bigarren xedapen gehigarria, hirugarren xedapen gehigarria, laugarren xedapen gehigarria, eta bosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua.